

CCOOnen balioak

- **CCOO sindikatua Espainian lehena** da, bazkideen eta hauteskunde kopuruari dagokionez. hautatutako ordezkarien kopuruari dagokionez.
- **CCOOk** honako printzipio hauek aldarrikatzen ditu: **justizia, askatasuna, berdintasuna eta elkartasuna**; eta, horrekin batera, langileen eskakarak defendatzen ditu. Gizarte kapitalistaren orde, gizarte sozialista eta demokratikoaren alde egiten du.
- **CCOO** erakunde sindikal **demokratikoa** da, non bazkideek sindikatuen barne jardueran parte hartzen baitute. CCOO erakunde **independentea** da, botere ekonomikoan, Estatuaren, alderdi politikoaren edo bere helburuak ez diren edozein interesen menpe ez dagoena.
- **CCOOk aukera berdinak** bultzatu eta garatzen ditu ekinza eragin korren bidez; ekinza horiek emakumeen eta gizoneen arteko kopuru orekatua maila guztietan lortzea dute xede.
- **CCOO** sindikatu **sozopolitikoa** da: batetik, langileei klase gisa eragiten dien guztia defendatzen du; eta, bestetik, emakumeen, gazteen, etorkinen eta ezgaituen aldarrikapenak, lan osasuna eta ingurumena bereziki babesten ditu, diskriminazio mota guztiak ezabatzeko.
- **CCOO** sindikatu **internazionalista** da, eta munduko herri guztiekiko elkartasunari eusten dio, era aktiboan, baldin eta herri horietan langileen askatasunen zein haien eskubideak egikaritzeagatik jazarriak diren langileen eta errefuxiatuen alde borrokatzen bada.
- **CCOO sindikatuak** etnia eta kultura aniztasuna barne hartzen du. Hori dela eta, arrazismoaren, xenofobiaren eta homofobiaren aurka borroka egiten du, eta balio hauek sustatzen ditu: etnia eta herri guztietako kideen arteko errespetua, tolerantzia eta bizikidetzeta.



“Orain da unea.
Defenda itzazu zure eskubideak
CCOOREkin”

Orain da
enplegua
defendatzeko
unea

Iberia. Lurrekoak

GEURE LANA,
BERMERIK ONENA

CCOOnen helburu nagusia enplegu egonkorren, langileen eskubideen eta langileen etorkizunaren alde borrokatzea da, bai eta lan baldintza hobeak lortzea ere.

Krisialdi honetan, funtsezkoa da langileek ekintzak antolatzea eta horiei ekitea; eta bermerik onena Langile Komisioekin aritzea da.

hauteskunde
sindikalak



Paper birziklatuan inprimatua



Hainbat arlotako enpresetan lan egiten duten profesionalak eta langileak barne hartzen ditu. Arlo horiek ondokoak dira:

- Hegazkin konpainiak.
- Lurreko asistentzia (handlinga eta mugikortasun murriztadun bidaiariak laguntzea).
- Aireko lanak eta helikopteroak (salbamendua, fumigazioa, aire argazkiak, eta abar).
- Aireontzien mantentze lanak.
- Aena.
- Iberiako Langileen Elbarrituen Gurasoak elkarte (APMIB).
- Hegazkinneko langileen zein lurreko taldeen prestakuntza eta trebakuntza.
- Erreserbak egiteko euskarri informatikoa.
- Ibilgailuen alokairua.
- Bidaia agentziak.

CCOOko Aire Sektorea eta Turismo Zerbitzuak Garraio Sektoreko Langileen Nazioarteko Federazioaren (ITF) eta Garraio Sektoreko Langileen Europako Federazioaren (ETF) barruan dago.

Sektore horretan, elkarlanerako hitzarmenak sinatu dira herrialde hauetako garraio arloko sindikatu nagusiekin: Alemaniako Ver.di rekin, Frantziako CGT rekin, Britainia Handiko Unite rekin eta Italiako FIT CISL rekin, eta laster CGIL rekin.

Aire Sektorea eta Turismo Zerbitzuak Langile
Komisioetan: 12.000 bazkide baino gehiago

CCOOK bete dituen konpromisoak

Negoiazio kolektiboa

- **CCOOK** hainbat hitzarmen sinatu ditu Iberiako lurreko langileentzat. Hitzarmen horien bidez, soldata igoerak lortu ditu, bai eta 1.000 enplegu eraldaketa ere, langileen lan baldintzak mantenduta, nahiz eta Iberiak soldatari eta produktibitateari loturiko neurriak hartzeko asmoa izan, errentagarri ez diren aire-portuak edo bezeroak bertan behera utziko dituela mehatxu eginez.
- **CCOOK** Enplegua Erregulatzeko 72/01 Espedientea 2013ko abenduaren 31 arte luzatzea sinatu du.
- **CCOOK** Enplegua Erregulatzeko Espediente hori lehenasunez erabil dadila ezartzea lortu du, baldin bat egite prozesuaren ondorioz, behar baino langile gehiago badago langile zerrendan.
- **CCOOK** txanda kontratuarekin erretiro partziala hartzeari buruzko akordioa sinatu du. Akordio horri esker, aireontzien mantentze lanetako teknikariak (TMA), Mantentze Lanetako Zuzendaritzan lan egiten dutenak, erretiroa hartzen ari dira, alde batetik; eta, bestetik, lanpostuak sortzen ari dira. Gainera, lortu den konpromisoari esker, langile horiek beteko dituzte lanpostu finkoak, langile zerrendan langile gehiago sartzeko beharraren arabera.

British Airways ekin bat egitea

- **CCOOK**, Britainia Handiko UNITE sindikatuarekin duen elkarlanerako hitzarmena betez, bilerak egiten ditu oso maiz, bat egitea dela eta. Orobat, sindikatuen ekintzak koordinatzen ditu, eta British en pentsio funtsei buruzko informazioa trukatzan du.
- **CCOOK** konpromiso bat har dadin lortu du, British Airways konpainiarekn bat egitearen ondorioz negozio banantzerik egin ez dadin.
- **CCOOK** konpromisoak lortu ditu, Iberiako langileak hizkuntza dela eta lanean diskrimina ez daitezen.
- **CCOOK** konpromisoa lortu du, lan harremanak tokian bertan manten daitezen, eta ez da onartuko Iberian eta British Airways konpainian bietan batera eragingo duen lan arloko akordiorik.



Mantentze lanak

- **CCOOK** hitzarmenean aeronautikako mantentze lanetako laguntzaile kategoria sartzeari buruzko aukera, eta 200 langile inguruk izan du kategoria horretan sartzeko aukera.
- **CCOOK** lortu du Hangar Lineako aireontzien mantentze lanetako teknikariek eskuratu dituzten gaitasunak aintzat hartzea PAR 66 lizentziak lortzeko.
- **CCOOK** sektorean egiten diren azpikontratazioen jarraipena egiten du, bereziki aeronautikako mantentze lanak egiten dituzten enpresetan.

Prestakuntza

- Honako lanbide hauek aintzatestea lortu dugu: hegazkineko laguntzaileena (TCP), aeronautikako mantentze lanetako laguntzaileena eta aireportuko agenteena Prestakuntzako Institutu Nazionalan (INCUAL).

Lan osasuna eta berdintasuna

- **CCOO** berdintasun plana negoziatzen ari da, xede hartuta emakumeen eta gizonen artean benetako berdintasuna lortzea, eta neurriak adostea, familia eta lana hobeto bateratzeko aukera izan dadin.
- **CCOOK** Jantzi Batzordea era dadin sustatu du. Batzorde horretan, **CCOOK** egin ditu ia planteamendu guztiak, eta egindako aurrerapenen artean, aipatzekoak dira honako hauek: gizonezkoen eta emakumezkoen jantziak ezberdintzea, emakume administrarietako zapatak (arropa emango den hurrengo aldia emango zaizkie) eta koordinatzaileentzako zirak.
- **CCOOK** zentro arteko Segurtasun eta Osasun Batzordean aztertutako gaien % 83 aurkeztu ditu. **CCOOK** aurkeztu dituen gaien artean, nabarmentzekoak dira honako hauek: kalitate inkestak sartzeari, Aldagelen Batzordearen eratzea, 30 egun baino baja luzeagoetan egin diren aldaketak, hainbat prozeduratan egin diren aldaketak eta arrisku psikosozialak balioztatze eskakizuna. Alde horretatik, **CCOOK** arrisku psikosozialei antzemateko prozedura aurkeztu du, ofizialki, Iberiarako. Prozedura hori oso erabilgarria da lantoki ertain edo txikietan (50 langile edo gutxiago).
- Prebentzioaren eta osasunaren arloko prestakuntza eman diegu **CCOO** Iberiako ia ordezkari guztiei. Prebentzioko aholkularitza sortu dugu.
- **CCOOK** Gizarte Ekintzako Batzordea kudeatzen du. Batzorde horrek urtean bi milioi euro baino gehiagoko laguntzak ematen ditu. Dirua itzuli beharrik ez dakarten laguntzak dira.

hauteskunde sindikalak



herriarrentzako zerbitzuak
aire eta turismo zerbitzuak



CCOOrren helburuak

- **CCOOK** lanean jarraitzeko konpromisoa hartu du, Iberiako negozioari bana ez dadin. Hitzarmen kolektiboan dagoeneko hartua zuen konpromisoaren epea luzatu du.
- **CCOOK** lanean jarraitzeko konpromisoa hartu du, Iberia indar dadin, International Airlines Group (IAG) taldearen barruan egitura independentetzat hartuta.
- **CCOOK** lanean jarraitzeko konpromisoa hartu du, Iberia aireko linea independentea izan dadin eta Barajas hub gisa gara dadin.
- **CCOOK** gaur egun Vueling eta Air Nostrum konpainiei lagata dituen linea guztiak berreskuratzeko eskakizunari eutsiko dio.
- **CCOOK** lanean jarraituko du, IAGtik sortuko diren egitura guztietan berdintasuna izan dadin, eta IAGko erabakiak hartzeko zentroek egoitza fisikoa Espainian izan dezaten.
- **CCOOK** IAGn Iberiako langileentzako enplegua sortzearen alde egiten du, eta langileentzat beharrezko den prestakuntza guztia bultzatzen du.
- **CCOOK** Iberiako langileen lanbide garapena indartzearen alde egiten du. Horretarako, langileen prestakuntza zabaldu du; langileen jardura ebaluatzeko modua aldatu du, haien gaitasunak hobeto ikusteko; eta giza baliabideak garatzeko politikak inplementatu ditu.
- **CCOOK** Iberia merkataritzaren arloan gara dadin aldarikatzen du. Horretarako, bestelako diru sarrerak bilatu beharko lirateke, eta jarrera abantailatsua izan beharko luke American Airlines eta British Airways konpainiekin ezarri duen Join Businessen.
- **CCOOK** lanean jarraitzen du, Iberia handling lizentziak esleitzeko leihaketa guztietan izan dadin (2013rako aurreikusitako diren), bai eta leihaketa horietatik irtengo diren operadore guztietan sektoreko hitzarmena nahitaez aplikatu dadin ere.
- **CCOO**ren ustez, nazioarteko handling merkatua aztertu behar da, diru sarrerak sortzeko era izango baita hori.
- **CCOOK** produktibitateari buruzko negoziazio guztiei ekingo die, baldin, borondatezko neurrien bidez, aeronautikako mantentze lanetan enplegu zuzena gehitzea ahalbidetzen badute.
- **CCOOK** aeronautikako mantentze lanetako laguntzaileek eskuratu eta gauzatuko dituzten aireontzien mantentze lanetako teknikarien gaitasunak aintzat har daitezkeen bultzatuko du.
- **CCOOK** lanean jarraituko du, gaur egun txanda kontratua duten langileen enplegua finkatu dadin; horretarako, kontratu finko egingo ditu halakoak.

CCOOK NEGOZIAZIO KOLEKTIBOEN ARTEAN OREKA MANTENTZEKO ESKAKIZUNARI EUTSIKO DIO.

CCOOK IBERIAREN BARRUAN GAUR EGUNGO NEGOZIOAK MANTEN DAITEZEN ESKATUKO DU, AURRE-RANTZEAN ERE.

CCOOK LANEAN JARRAITUKO DU, IBERIAKO LANPOSTUAK MANTEN DAITEZEN.

